

PRENTSA OHARRA

BC3, klima-aldaketaren aurkako abeltzaintza-ikerketari buruzko nazioarteko LIVEM solasaldiaren antolatzailekide da

- Europako 21 herrialde eta ikerketa-zentro ugari biltzen dituen MACSUR ezagutza-elkarteko 50 ordezkari Bilbon bilduko dira datorren urriaren 15ean eta 16an.
- Solasaldi hori abeltzaintzaren arlorako MACSUR-ek antolatutako lehen jarduera da, Europa mailako **Nekazaritzari, Elikadura Segurtasunari eta Klima-aldaketari buruzko Baterako Programazioaren** inguruko ekimenaren barruan (FACCE JPI).
- Topaketa zientifikoaren antolatzailekide izan da **BC3, Basque Centre for Climate Change, Agustin del Prado doktorea** buruan dela.

[Bilbo, 2014ko urriaren 13an]

Urriaren datorren 15ean eta 16an, Bilboko Itsas Museoa, klima-aldaketaren aurkako abeltzaintza-ikerketari buruzko nazioarteko solasaldia egingo da, izenburu honekin: **“International Livestock Modelling and Research Colloquium”**.

Topaketa zientifiko horren antolatzailekide izan da BC3, Basque Centre for Climate Change, eta nazioarteko 50 aditu bilduko ditu, Agustin del Prado doktorea buruan dela.

Solasaldia **MACSUR** ezagutza-elkartearen baitan dago. Elkarrekin abeltzaintzaren arlorako antolatutako lehen jarduera da, Europa mailako **Nekazaritzari, Elikadura Segurtasunari eta Klima-aldaketari buruzko Baterako Programazioaren** inguruko ekimenaren barruan (**FACCE JPI**). Ekimenak 21 herrialde biltzen ditu, Europa mailako ikerketa-zentro eta unibertsitate ugari gainera. Horiek konpromisoa hartu dute Europako Ikerketagune integratu bat eraikitzeko, nekazaritza iraunkorraren, elikadura-segurtasunaren eta klima-aldaketaren eraginekin elkarrekin lotutako auziak bilduko dituenak. Europako nekazaritza-sektorean klima-aldaketak duen eragina aztertzean oinarritzen da haien ikerketa. Topaketa hau, zehazki, abeltzaintzaren azpimultzoan oinarrituko da.

FACCE JPI ekimenak nekazaritza-produkzio iraunkorren eta hazkunde ekonomikoan laguntzeko ikerketa eskura jarri eta zuzentzen du, Europan bioekonomia sartzen laguntzeko eta, era berean, egungo eta etorkizuneko klima-aldaketaren aurrean ekosistemen zerbitzuak mantendu eta lehengoratzea ziurtatzeko.

FACCE JPI ekimena H2020 programarekin batera doa (Europar Batasuneko ikerketa- eta berrikuntza-jardueren Esparru Programa). Ikerketaren esparruan dauden programak eta agendak dinamizatu eta koordinatzeko programa da.

Haren helburua da eginkizun hori diziplinaz haraindiko ikerketa-oinarri sendo batekin egitea; horretan bildurik, alderdi ekonomikoak eta sozialak, alderdi zientifikoez gainera, **Estatuko eta eskualdeetako programak** harmonizatzeko sormenezko ikuspegiaz, eta eragile eta talde interesdun ugariren ekarpenaz.

MACSUR ezagutza-elkarte horretan, BC3 - Basque Centre for Climate Change erakundeak ordezkatzeko du Euskal Herria. Ikerketa zientifikoko zentro horren helburua da jardun-esparru horretan Euskal Herriaren lidergoa finkatzea, klima-aldaketaren aurrean abeltzaintza-modelizazioari buruzko nazioarteko solasaldia Bilbon antolatuta. Gertakari hori, gainera, nekazaritza eta basozaintzako sektorean berotegi-efektuko gasen emisioa murrizteko ikerketari buruzko REMEDIA sarearen/elkartearen gaian biltzen da. Elkarte horrek Estatu mailan dihardu, eta BC3ko ikertzaile Agustin del Prado doktoreak sustatu eta koordinatu du.

FACCE JPIren oinarritzko ikerketarako 5 ardatz estrategiko

- 1 • Elikadura-segurtasun iraunkorra klima-aldaketaren pean, oinarri hartuta elikadura-sistemen ikuspegi integratu bat: modelizaziorako, konparaziozko ebaluaziorako eta politiken azterlanerako hurbilketekin.
- 2 • Ingurumen-hazkunde iraunkorra eta nekazaritza-sistemen areagotzea egungo eta etorkizuneko klimaren pean, eta baliabideen eskuragarritasuna.
- 3 • Elikadura-produkzioaren, biodibertsitatearen eta ekosistema-zerbitzuen arteko konpentsazioak ebaluatu eta murriztea.
- 4 • Klima-aldaketarako egokitzapena elikadura-kate osoan zehar, merkatuko eragina barne dela.
- 5 • Berotegi-efektuko gasak arintzea: oxido nitrosoa eta arintze-metanoa nekazaritza eta basozaintzako sektorean, karbonoa hartzea, erregai fosilak ordezkatzeko eta luraren erabileraren zeharkako aldaketak eragindako berotegi-efektuko gasen emisioa arintzea.

Ikerketa-gai horien helburua da baterako ekintza pilotuak iradokitzea ikerketa-gabezia dagoen eta lankidetzaz ezinbestekoa duten eremuen gainean.